




Aurkikuntza txiki handiak

Nikon Small World 2020



Zebra-arrain baten hezurak eta ezkatak (urdinez), eta hodi linfatikoak (laranjaz)

Daniel Castranova, Brant M. Weinstein,
Bakary Samasa (AEB)


Nikon Small World argazki-lehiaketaren 2020ko edizioako irabazlea ez da irudi eder bat soilik, aurki-kuntza garrantzitsu baten oinarria ere bada. Zebra-arrain baten burua eta bizkaraldea erakusten ditu, fluoreszentziaz markatuak. Hezurdura eta ezkatak urdinez ikusten dira, eta, laranjaz, sistema linfatikoa. Eta laranja horretan dago irudiaren garrantzia. Izan ere, zebra-arrainek garunaren inguruan hodi linfatikoak dituztela aurkitzeko balio izan zuen irudi honek.

Mikroskopioz ateratako 350 argazki elkartuta lortu zuen Daniel Castranova ikertzaileak emaitza hau. "Irudia ederra da, eta, gainera, erakusten du

zebra-arrainak oso erabilgarriak izan daitezkeela linfa-hodien garapenaren eredu gisa", dio Castranovak. "Orain arte, uste genuen sistema linfatiko mota hori ugaztunek bakarrik zutela. Orain, zientzialariek hainbat ikerketa askoz errazago egin ahal izango dituzte, hala nola garuneko gaixotasunena. Izan ere, arrainak ugaztunak baino askoz errazagoak dira hazteko eta behatzeko".

Irabazleaz gain, beste 87 irudi ere nabarmendu ditu lehiaketako epaimahaiak. Horietako batzuk ekarri ditugu hona. Guztiak ikus daitezke lehiaketaren webgunean: <https://www.nikonsmallworld.com/galleries/2020-photomicrography-competition>.





Chrysidia rhipheus
tximeletaren hegoko ezkatak
Don Komarechka (Kanada)

Pailazo-arrain baten
enbrioi-garapena
(*Amphiprion percula*);
1. eguna, 3.a goizean,
3.a iluntzean, 5.a eta 9.a
Daniel Knop (Alemania)








Saguzar fruitujale baten enbrioia (*Carollia perspicillata*)

Zuzana Vavrušová, Richard R. Behringer (AEB)



Saguzar fruitujale baten enbrioiaren hezurdura (*Carollia perspicillata*)

Dorit Hockman, Vanessa Chong-Morrison (Hegoafrika)



Nylonezko galtzerdiak
Alexander Klepnev (Errusia)

